

7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Baliabide fisikoei dagokienez, gure enpresa aurrera eraman ahal izateko hainbat espazio beharrezkoak izango dira. Alde batetik, bizikletak sortu, konpondu eta mantentzeko lantegi bat edukitzea ezinbestekoa izango da.

Bestetik, denda bat izango dugu gure produktuak erakutsi eta saltzeko, baita bezeroekin aurrez aurreko harremana izateko ere.

Horrez gain, biltegi bat beharko dugu bizikletak eta eskaintzen ditugun gainerako produktuak saldu aurretik modu egokian gordetzeko eta antolatzeko.



Beste baliabideei dagokienez, kalitate oneko materialak erabiltzea lehenetsiko dugu, hala nola, erremintak eta beharrezko bestelako tresneria espezializatua.

Baliabide intelektualei dagokienez, gure produktua patentatzea oso garrantzitsua izango da guretzat, horrela modu legalean gurea dela bermatuko baitugu.

Giza baliabideei dagokienez, honako pertsonak osatuko dute gure lan taldea:

- **Saltzaileak** → Bezeroei arreta emateko eta produktuak saltzeko.
- **Mekanikariak** → Bizikletak muntatu eta konpontzeko.
- **Biltegiko langileak** → Produktuak antolatzeko eta stockaren kontrola egiteko.
- **Kontabilitate-arduraduna** → Fakturak eta ordainketak kudeatzeko.

Azkenik, aipatutako baliabide guztiak eta beharrezkoak diren bestelako elementuak eskuratzeko, finantza-baliabideak funtsezkoak izango dira. Enpresa martxan jartzeko dirua beharko dugu, eta horretarako bi diru-iturri nagusi aurreikusten ditugu: alde batetik, bazkideek egingo dugun diru-ekarpena, eta bestetik, bankuari eskatuko diogun mailegua.

